



Badator 2025eko Bertso Eguna

Lesakan izango da 2025eko Bertso Eguna, urtarrilaren 25ean; ekitaldirako zein afarirako sarrerak salgai daude bertsozale.eus atarian.

Oraintsu aurreratu guden datorren urteko Bertso Eguneko data: urtarrilaren 25ean izango da, Lesakan. Bertsozale Elkarte eta Bortzirietako Bertso Eskola elkarlanean ari gara egun osoko egitaraua prestatzen.

10:00etan jarri dugu hitzordua: Oinak Bidean ibilbidea egingo da Harriondoatik hasita. Ondoren, bertso-potea egongo


da eta hainbat bertso eskolatako kideek kantatuko dute. Eguerdian luntxa egingo da Arrano ostatuan, 14:30etik aurrera.

Arratsaldeko jaialdian bertso gehiago entzuteko aukera izango da: XXI mende, 25 (H)illbetz bertso saioa izango da Harriondoan. Kantuan, Alaita Martin Etxebeste, Amets Arzallus Antia, Julio Soto Ezkurdia, Maddi Ane Txoperena

Iribarren, Nerea Ibarzabal Salegi eta Peru Abarrategi Sarrionandia ariko dira; gaitzaitale lanetan, berriz, Alaitz Rekondo Ferrero.

Saio ostean ere izango da festa giroa. 20:30etik aurrera, afaria egongo da sagardotegian. Eta afalostean, Manex Pagola eta Hor guren bertso jarriak izango dira. Eguna biribiltzeko, DJ-a egongo da Arranon.

Arratsaldeko ekitaldirako zein afarirako sarrerak eskuragai daude bertsozale.eus atarian. Ekitaldiko sarrerak 12 euro balio du, Bertsozale Elkarte bazkideentzako 10 euro eta gazteentzako 8 euro; afaria, berriz, 36 eurokoa izango da.



ALAITA MARTIN ETXEBESTE

DONOSTIA 2024-12-14

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETAKO TXAPELDUNA

Neurria: Hamaseikoa, ertainaren moldekkoa, 8 puntuz

Doinua: Itsasoa marroia bada

Bihurtu ditzagun lagunak bizitzaren tenplu badakitenak zer, noiz, nola eta non galdetu entzuten gaituztenak nahiz ta pixka't logaletu ta etxe bihurtzen dutenak edozein ezleku. Mendeko hitza bilakatu den hontan mendeku disolba dezagun eskuina ta auzoa ezkeru egon gaitzen lagunekin hauskor ta inprefektu elkarrengandik gertu eta elkarrentzat gertu.

Araba erritmoz josiko dute

Ærrimatu Arabako bertsolariak herriz herri egitasmoa martxan dago, Arabako Bertsozale Elkarteen eta Arabako Foru Aldundiaren arteko elkarlanaren fruitu. Dagoeneko jokatu dira bi saio, eta azkena falta zaie: abenduaren 28an, Izarran.

Laugarren edizioa du aurten *Ærrimatu Arabako bertsolariak herriz herri* ekimenak. Aurtengoan, 12 bertsolarik, eta 3 gai jartzailek hartu dute parte. Bertsolaritza eta euskara Araba luze zabalean hedatzeaz gain, bertsolari eta gai-jartzaileei trebatzeko plazak eskaintzeko helburua du egitasmoak.

Hiru saio izango ditu aurtengo edizioak, hiru eskualde arabarretako hiru udalerritan: Eskuernagan, Langraizen eta Izarran. Lehen biak jokatu dituzte dagoeneko, Eskuernagan eta Langraizen: Izarrakoa baino ez da falta, abenduaren 28an, 19:00etan, kultur etxean.



Eskuernagako saioa, abenduaren 15ean.. //XDZ

Bizkaiko adinekoen egoitzetan bertsoa izango dute ardatz

Bizkaiko 12 udalerritan izango dira saioak, eta guztira 22 bertsolari ariko dira kantuan. Lankuren proiektuak Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

Bertsoa ardatz ekimenak Bizkaiko adinekoen egoitzetan egingo du bira, Bizkaiko bazter eta txoko ugari ezagutuko ditu. Lankuren *Adin-adin* proiektuan dago oinarrituta ekimena, zeinak asmoa duen bertsoaren bidez adinekoen bizi kalitatea eta gaitasun kognitiboa hobetzea eta sustatzea, baita euren parte-hartzea sustatzea ere.

Proiektuak lurraldetasuna du ardatz nagusietako bat, eta horregatik, saioetan ariko diren bertsolariak egoitzako herrikoak edo eskualdekoak dira gehien-gehientsuetan. Belaunaldi artekotasuna da beste ardatza: bertsolari gazteak helduekin batera kantatzen baitute saio hauetan.

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Gizarte ekintzak lagundu du proiektua.



Ander Elortegi eta Nerea Ibarzabal Durangoko egoitzan bertsoan.. //XDZ

Urteko bertsoaldien errepasoa, **Bardeetatik**

2024ak eman duenaren errepasoa egingo du Hitzetik Hortzerak urteko azken programan; 15 bertso jaialdi zein mahai bueltako jasoko ditu errepasoak.



Bardeetan grabatu dute aurtengo Hitzetik Hortzera berezia. //XDZ

2023an egin genuen moduan, aurten ere urteari errepasoa egiteko baliatuko dugu urteko azken Hitzetik Hortzera saioa. Iaz Donostiako Maria Kristina hotelean izan ginen azken programan, eta aurten, luxuzko beste leku batean egongo gara: Nafarroako Bardeetan. Paisaia eta inguruak baliatuz, 2024aren errepasoa egingo du Mirari Martiarenak.

Euskal Herri luze zabaleko bertsoaldiekin gozatzeko aukera izango da programan. Orotara hamabost bertso jaialdi zein mahai bueltako saio jasoko ditu errepasoak. Gainera, hogeitabertsoaldietatik gora ikusi eta entzun ahal izango ditugu.

Umorez aurkeztuko da denboraldiko azken programa, umorezko "esketz" dibertigarriekin jantzirik.

Ekhiñe Zapien bertsolariaren sorta musikatua

Programa amaitzeko Ekhiñe Zapien bertsolari beratarren bertso-sorta musikatuekin gozatzeko aukera izango da. Manex Pagolak musikatuta, pieza eder bat eskainiko dute.

Aurtengo Hitzetik Hortzerak amaitzear daude, baina 2025arekin berriro itzuliko gara pantailetara; larunbatero, 21:00etan, ETB1en aurkituko gaituzue.

Larrialditik indarraldira

Euskararen biziberritzea datozen urteetako agenda politikoaren zentroan jartzearen beharra aldarrikatu dugu.

EuskaGintzaren Kontseiluak deituta agerraldia egin zen azaroaren 30ean Martin Ugalde Kultur Parkean: Euskararen biziberritzea agenda sozial eta politikoaren lehen lerroan kokatu nahi da. 2025ari begira mobilizazio sozial handi bati hasiera emateko mezua eman zen agerraldian. Euskararen normalizazio

prozesuan mugari izan nahi du datorren urteak, eta ekimen gehiago aurkeztuko dituzte laister. Azaroaren 9an Bilbon euskara larrialdi linguistikoan dagoela zehaztearen ondotik, ekiteko garaia dela zehaztu dute hainbat eragilek; tartean, Bertsozale Elkarteak.



EuskaGintzako hainbat eragile izan ziren agerraldian; tartean, Bertsozale Elkarteko kideak.. //XDZ



Puntu jarrita

ALAZNE UNTXALO ERREGERENA

Balkoitik begira jarri naiz, paraje berde hauetan herriko dolaetxean kantatuko ziren bertsoak imajinatzen, herriko xaharrak joan ahala desagertuko diren bertso sorta eta doinuak gogora ekarri nahian. Emeki-emeki lurruntzen joan zen Baztango Bertso Eskolaren oroitzapen arrastoak ere niregan dira.

Baztanen urtetan bertso eskola izan den arren, momentu honetan ez da irakasle baten bueltan biltzen den talderik. Ez dago umeen bertso eskolarik ezta helduen bertso eskolarik ere, eta hau kezkarria da aunitzendako. Bertso Eskolaren hutsuneak eragina izanen du, espazio horretan sortzen baitira zaleak, bertsolariak, gai egileak; baita bertso saioak ere. Hala ere, badira modu autogestionatuan elkartzen diren taldeak, ofizialki inon ageri ez direnak baino lagun arte goxoa bertsoak elkartu eta bertsotan astero edo ia astero aritzen direnak.

Astero modu naturalean elkartzen gara bi lagun han eta hemen, batak bertzea etxera gonbidatu eta zerbait hartzen dugun bitartean bertsotan aritzen gara mahaiaren bueltan. Gehienetan librean. Konpainia ona eta hitz jario luzea, edozeri buruz kantari aritzeko erraztasuna, ateratzen den gai bakoitza zukutzeko gogo. Izaten dira ileak puntan jartzeko moduko bertsoak edo begiak betetzearaino hunkitzen gaituztenak, baita irriz lehertu eta elkarri ziria sartzekoak ere. Batek doinu berriak ekarri eta bertzeak saioen aurreko egunetan laguna indartu. Guk sortu dugu eta gure espazioa da, bi laguneko bertso eskola.

Bailaran badugu bertze Bertso Eskola bat eta talde horren parte da Malen Alzuart. Bertso eskolatik plazara kantari atera zinen duela bi urte eta aurten Bardotan (Nafarroako Taldekako Txapelketa) parte hartu duzu lehenengoz. Konta iezaguzu zure esperientzia, zergatik dira garrantzitsuak horrelako ekimenak?

Koplak

Ahots Baten sormen egonaldia

Mintzolaren baitan sortu genuen Ahots Baten sormen egonaldia X. edizioa betetzera doa aurten. Egun Euskaltzaindiak antolatzen du ekimena eta laguntzaile gara Bertsozale Elkarte eta Ikastolen Elkarte. EHko Eskolarteko finalistari sari nagusia horixe da: neguan berriz ere elkartzeko eta bertsoarekin batera beste adierazpideez gozatzeko elkargunea eskaintzea. 15-22 urte bitarteko 30 gazte elkartuko dira abenduaren 26tik 30era Lekarozko aterpean. Beste arte adierazpide batzuen artean bertsolaritzak ere izango du tartea: Sarai Robles eta Xabat Gallettebeitia bertsolariak izango dira bertan.

Poto-Finixa



Bertsoz blai

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Ahalduntze Bertso Eskolako izen-ematea bigarren hiruhilekorako

Ikasturte osorako ez ezik, hiruhilabeteka izena emateko aukera eskaintzen du Ahalduntze Bertso Eskolak. Lehen hiruhilekoa pasata, bigarrena hasi baino lehen izen-ematea irekiko da honenbestez: urtarrilaren 7an irekiko da www.bertsozalea.eus webgunean

ITZAL (IKO) BAGINA

ZEHARKATU GAITUENA PERFORMATZEN

Info + | Lanku www.lanku.eus